

Arartekoaren 2013ko martxoaren 13ko ebazpena. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari gomendatzen dio pertsona batek ohiko etxebizitza eskuratzeko jaso duen dohaintza ekonomikoa errentatzat edo diru-sarreratzat har ez dadila, ordaindutakoaren araberakoa ez den pentsioaren ondorioetarako.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan ordaindutakoaren araberakoa ez den pentsio bat, ezintasunekoa, iraungitzeari buruzko auzi bat planteatu zen. Pentsio hori (...) andreak jasotzen zuen. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak diru-zenbateko bat erreklamatu zion pentsiodunari, behar ez zela jaso zuelakoan.

Pentsioa kentzeko arrazoia zen interesdunari dohaintza ekonomikoa eman ziotela gurasoek. Diru hori ohiko etxebizitza eskuratzeko erabili zuen oso-osorik. Aldundiaren sail horrek zenbateko hori interesdunaren errentatzat edo diru-sarreratzat jo zuen, eta horregatik ulertu zuen diru horrek pentsiorako eskubidea izateko dagoen muga gainditzen zuela.

2. Interesdunak %65 baino gehiagoko ezintasun fisikoa dauka. Horregatik, ordaindutakoaren araberakoa ez den pentsioa, ezintasunagatik, jasotzeko eskubidea aitortuta zeukan. Mugikortasun arazoak dauzka eta Eusko Jaurlearitzari, Etxebideren bitartez, babes ofizialeko etxebizitza bat, bere egoerari egokitua, eskatu zion.

2011. urtean, honelako etxebizitza bat erosteko aukera adjudikatu zitzaion. Etxebizitza erosteko, hipoteka-mailegua eskatu zion finantza erakunde bati. Erakunde horrek, mailegua eman ahal izateko, aldez aurretik kapital jakin bat edukitzea exijitu zion. Une horretan, gurasoek diru-zenbateko bat eman zioten, eta berak etxebizitza ordaintzeko erabili zuen osorik. Horrenbestez, finantza erakundeak hipoteka-mailegua eman zion. Beraz, interesdunak etxebizitza eskuratu zuen eta bertan jarri zuen bere ohiko bizilekua.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak, azaldutakoaren berri jakin zuenean, erabaki zuen dohaintzan jasotako diru-zenbatekoa interesdunaren diru-sarreratzat jo behar zela, dohaintza egin zen urtean (2011). Horrela, bada,

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

prestaziorako eskubidea edukitzeko legeak ezartzen duen gehieneko baliabide kopurua (edo urteko diru-sarreraren gehieneko muga) gainditu zuen interesdunak.

Horren arabera, aldundiak ulertu zuen urte horretan ez zegokiola pentsioa eta hura iraungitzeko prozedura hasi zuen. Interesdunak alegazioak egin zituen, eta haietan agirien bidez frogatu zuen jasotako diru-zenbateko osoa etxebizitza ordaintzeko erabili zuela. Hala eta guztiz ere, aldundiko sail horrek pentsioa iraungitzea erabaki zuen, 2011ko apirilaren 1etik aurrera, 2011ko urriaren 4ko 65740 Foru Aginduaren bidez. Horren ondorioz, 2011-04-01etik 2011-09-30era (sei hilabetetan) jasotako diru-sarrerak behar ez zela jasotakoak dira. Interesdunak ebazpena errekurritu zuen baina sailak ezetsi egin zuen. Ados ez zegoenez gero, Arartekoaren esku hartzea eskatu zuen.

3. Auzia erakunde honetan planteatu zenean, Gizarte Ekintza Sailari idazki bat bidali zitzaion, informazioa eskatzeko, dohaintzari emandako erabilera kontuan izanik. Jaso genuen erantzunean, aldundiko sailak ebazpena emateko arrazoiei eutsi zien. Hau da, beraren ustez, interesdunak jasotako dirua aintzat hartu behar zen, eman zitzaion erabilera gorabehera. Horretarako, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzazko Errege Dekretua eta martxoaren 15eko 358/1991 Errege Dekretua aipatu zituen.
4. Erakunde honek kasua sakonago aztertu zuen eta erabaki zuen jasotako diruari emandako erabilera (ohiko etxebizitza ordaintzea) funtsezko elementua zela diru hori diru-sarreraren zenbaketatik salbuetsi behar zela erabakitzeko. Horrela ulertuz gero, pentsioa iraungitzea eta behar ez zela kobratu zuen diruaren erreklamazioa bertan behera geratuko lirateke.

Horregatik, erakunde honek beste idazki bat bidali zion Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari. Legeen eta jurisdikzioaren inguruko zenbait gogoeta jakinarazi zizkion, sailak ez baitzituen kontuan hartu. Haiek aplikatzeak, ordea, ondorio guztiz ezberdina ekarriko luke, gure ustetan.

Idazki hartan, lehen aipatutako araudiaz gain (ekainaren 20ko 1/994 LED eta martxoaren 15eko 357/1991 ED), beste bat aipatu genuen: Presidentziaren Ministerioaren azaroaren 13ko PRE/3113/2009 agindua, martxoaren 15eko

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

357/1991 Errege Dekretua aplikatzeko eta garatzeko arauak eman zituen. Errege dekretu horren bidez ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioen gaian, abenduaren 20ko 26/1990 Legea garatu zen. Lege horrek ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak ezarri zituen, Gizarte Segurantzaren kontuan izan beharreko errenta edo diru-sarreraren arabera, eta beraien egozpena finkatu zuen. Hau da, 357/91 ED-a aplikatzeko irizpideak ezarri zituen aginduak, kontuan izan beharreko errenta edo diru-sarrerari eta beraien egozpenari dagokienez. 7. artikuluan *"rentas o ingresos no computables"* aipatzen du. Agindu hori ez zuen foru aldundiak aipatu ebazpenean ezta erakunde honi bidalitako idazkian ere.

Era berean, geure idazkian Auzitegi Gorenaren Lan Arloko bi epai aipatu genituen, biak ere doktrina bateratzeko emanak: 3398/2009 zenbakiduna, apirilaren 6koa, eta 3676/2009 zenbakiduna, apirilaren 30ekoa. Osagarri gisa beste epai bat aipatu zen, kasu honetan oinarritzko errentari buruzkoa, EAEko Justiziako Auzitegi Nagusiarena, 215/2011 zenbakiduna, apirilaren 11koa.

Hori guztia oinarri hartuta, aldundiko sail horri jakinarazi genion gure ustez argudio nahikoak zeudela interesdunak eskuratutako dirua diru-sarreratzat ez hartzeko eta, horrenbestez, aldundiak dohaintza hori diru-sarreratzat jotzeko hartu zuen erabakia, dirua zertarako erabili zen kontuan izan gabe, berriro aztertzeko. Sail horrek azaldutako guztia baloratzeko eskatu genion.

5. Sailak erantzuna bidali zigun. Bertan, jasotako dohaintza oro diru-sarreratzat jotzeko erabakiari eutsiko ziola adierazi zigun, diruari ematen zitzaion erabilera kontuan izan gabe. GSLOaren 144. artikulua aipatu zuen, ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioak eskuratzeko betekizunak azaltzen dituen. Artikulu horren 5. atalak azaltzen du kontuan izan beharreko errenta edo diru-sarrerak direla ondasun eta eskubide guztiak, lanetik nahiz kapitaletik eratorriak, baita prestazio izaerakoak ere. Era berean 357/1991 ED-aren 12.4 artikulua aipatu zuen: *"En todo caso se computarán las rentas o ingresos de cualquier naturaleza que se tenga derecho a percibir o disfrutar, salvo las asignaciones económicas por hijo a cargo, tengan o no la condición de minusválido (...), los subsidios de movilidad y compensación de gastos de transporte previstos en la Ley de Integración social de Minusválidos, así como los premios o recompensas"*

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

otorgados a personas minusválidas en centros ocupacionales". PRE/3113/2009 aginduari dagokionez, aldundia ez zegoen ados erakunde honek egindako interpretazioarekin, eta adierazi zuen diru-sarreraren zenbaketaren salbuespena, 7. artikulua *"subvenciones, ayudas o becas destinadas a compensar un gasto realizado"* dionerako ezarri zuena, aldeztatik egin ziren eta jasotako laguntzaren bidez konpentsatu ziren gastuei buruzkoa dela. Laguntzak kalte-ordain edo konpentsazio izaera du kasu horretan. Gaineratu zuen interesdunak eskuratutako dohaintzak ez daukela izaera hori, jasotzailearen ondarea gehitu duelako.

Jurisprudenziaren erreferentziei buruz, aldundiaren idazkiak ez zuen inola ere azaldu Auzitegi Gorenaren epaiei buruz (erakunde honek alegatutakoak) egin zuen balorazioa. Aitzitik, aldundiak hiru epai aipatu zituen (guztiak ere erakunde honek aipatutakoak eta Presidentziaren Ministerioaren agindua baino lehenago emanak), justiziako auzitegi nagusienak. Epai haien arabera, ordaindutakoaren arabera ez diren pentsioetarako, gastu jakin batzuk (bat ere ez ohiko etxebizitza erosteko) kontuan hartu behar dira. Hauek dira: Kataluniako Justiziako Auzitegi Nagusiaren 5133/1993 epaia, irailaren 13koa (ezkontideak edo bizikideak jasotzen duen pentsioa kontuan hartzen du); Balear Irltetako Justiziako Auzitegi Nagusiaren 63/2003 epaia, otsailaren 4koa (bizikide duen alabak hilero nominan dieta gisa kobratzen zituen zenbatekoak kontuan hartzen zituen; enpresak dieta horiek laneko diru-errendimendutzat jo zituen PFEZaren atxikipenen dokumentuan) eta Kataluniako Justiziako Auzitegi Nagusiaren 9164/1998 epaia, abenduaren 10ekoa (pertsona batek bere semearengandik, mantenurako, jasotzen duen ekarpen ekonomikoa kontuan hartzen du).

Erakunde hau ez dago ados Gizarte Ekintza Sailak gai honetan emandako argudioekin. Ezadostasuna gogoeta hauetan oinarritzen da:

Gogoetak

1. Gure antolamendu juridikoak herritarrek etxebizitza duina izateko eskubidea babesten du. Pertsonarik behartsuenek eskubide hori gauzatu ahal izateko babes neurri batzuk ezartzen ditu. Testuinguru horretan, eta Espainiar

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

Konstituzioaren 47. artikularekin bat datorren politika bat garatuz, euskal administrazio publikoek (batez ere Eusko Jaurlaritzak eta udalek) babes ofizialeko etxebizitzaren (aurrerantzean BOE) eraikuntza sustatzen dute, inguruabar sozial eta ekonomikoen ondorioz etxebizitza bat eskuratzea oso zail edo ezinezkoa egiten zaien pertsonen etxebizitza edukitzeko aukera emateko. Etxebizitza horiek eskuratzeko zenbait betekizun bete behar dira. Betekizun horietako batzuk ekonomikoak dira.

Era berean, antolamenduak kontuan hartzen ditu ezintasunak dakartzan mugikortasun arazoengatik etxebizitzarako eskubide hori gauzatzeko zailtasun are handiagoa daukaten pertsonak. Izan ere, beren ezaugarriei egokitutako etxebizitza behar dute, arkitekturako oztoporik gabekoa. Eragozpen horiek arintzeko neurriak eskaintzen ditu antolamenduak. Horri buruz, legeak exijentzia bat dauka¹: honelako sustapenetan etxebizitzaren %4 mugikortasun arazoak daukaten ezindutako pertsonen premia berezietara egokitzea, hau da, arkitekturako oztoporik ez edukitzea eta abar. Neurri horien bidez, pertsona hauei etxebizitza eskuratzea erraztu nahi zaie, gainerako pertsonak baino eragozpen gehiago dauzkatelako. Batetik, beraien ezintasuna eragozpen erantsia da lan merkatuan sartzeko eta diru-sarrerak eskuratzeko. Bestetik, etxebizitza librean oso zaila suertatzen zaie oztoporik ez duen eta beraien egoerari egokituta dagoen etxebizitza bat aurkitzea.

2. Gure kasuan, administrazioak egokitutako BOE bat adjudikatu zion interesdunari, beraren eskaerari erantzunez. Horretarako betekizun guztiak betetzen zituen, mugikortasun murrizkarena barne. Interesdunak mailegu bat edukiko zuela uste zuen etxebizitza ordaindu ahal izateko, kasu hauetan gertatu ohi denez. Hala eta guztiz ere, 2011. urterako krisi ekonomikoa finkatuta zegoen eta beraren ondorioak nabariak ziren. Ondorio horietako bat izan zen finantza erakundeek mailegu gutxiago eta baldintza estuagoekin ematen zituztela.

Interesdunak hipoteka-mailegua eskatu zion finantza erakunde bati, eta erakunde horrek, eskatutako dirua emateko, adierazi zion berak diru-zenbateko bat eduki behar zuela etxebizitza ordaintzeko. Diru hori ez zeukanez, gurasoak

¹ 13/1982 Legea, apirilaren 7koa (LISMI), 57.1 art.

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

eman zioten, dohaintza modura. Horregatik, finantza erakundeak mailegua eman zion interesdunari, eta hark etxebizitza erosi ahal izan zuen. Agiri bidez frogatuta dago diru hori oso-osorik etxebizitza erosteko erabili zuela, gastu eta zerga egokiak ordaindu ondoren.

3. Hauek dira, guri dagokigunean, ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioak arautzen dituztenak:

- 1/1994 Legegintzazko Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren (aurrerantzean GSLO) testu bat egina onartu zuena.

- 357/1991 Errege Dekretua, martxoaren 15ekoa, ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioak Gizarte Segurantzari finkatu zituen 26/1990 Legea garatu zuena (lege hori GSLOan sartu zen)

- PRE/3113/2009 agindua, azaroaren 13koa, martxoaren 15eko 357/1991 Errege Dekretua aplikatzeko eta garatzeko arauak eman zituen. Errege Dekretu horren bidez, ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioen gaian garatu zen abenduaren 20ko 26/1990 Legea, Gizarte Segurantzari ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak, errenta edo diru-sarrera zenbakarrien gainean, eta beraien egozpena ezarri zituen. (EAO 2009-11-20).

GSLOaren 144. artikulua, 1. atalean, ordaindutakoaren araberakoa ez den ezintasun pentsiorako eskubidea izateko betekizunak ezartzen ditu. Betekizun horietako bat hau da: *"d) Carecer de rentas o ingresos suficientes... "*. Gaineratzen du errentak edo diru-sarrerak nahikoak ez direla joko dela baldin eta beraien zenbatekoa, urtean, ordaindutakoaren araberakoa ez den ezintasun pentsioaren urteko zenbatekoa baino txikiagoa bada, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean ezarri den zenbatekoaren arabera.

Artikulu bereko 5. atalak hau dakar: *"... se considerarán como ingresos o rentas computables cualesquiera bienes y derechos, derivados tanto del trabajo como del capital, así como los de naturaleza prestacional "*.

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

357/1991 Errege Dekretuaren 1 eta 11. artikuluetan aurreko bi ataletan adierazitako ideia bera jasotzen da. 12. artikulua errenta edo diru-sarrera zenbakarriei buruzkoa da, eta 4. atalean ondokoa adierazten du: *"En todo caso, se computarán las rentas o ingresos de cualquier naturaleza que se tenga derecho a percibir o disfrutar..."* eta zenbateko horretatik bi prestazio salbuesten ditu: norberaren ardurapean dagoen seme edo alabarentzako esleipen ekonomikoa, eta mugikortasunerako eta garraio gastuen konpentsaziorako sorospenak, LISMIan aurreikusiak. Zereginetako zentroetan ezindutako pertsonen ematen zaizkien sariak ere salbuesten ditu.

Aurreko bi xedapenak aplikatuz gero, hasiera batean, interesdunak jasotako dohaintza errenta edo diru-sarrera zenbakarria dela pentsa genezake. Halere, Presidentziaren Ministerioak errenta edo diru-sarrera zenbakarriei buruz eta ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioetan egozteari buruz ezarri dituen irizpideak (hau da, arestian aipatutako PRE/3113/2009 agindua) kontuan izan behar ditugu. Agindu hori, bertan azaltzen denez, *"El análisis y evaluación de la regulación vigente y sus efectos (...), la jurisprudencia emanada de las sentencias dictadas por el Tribunal Supremo, que se han pronunciado sobre el concepto de renta o ingreso computable y su imputación personal (...)"* que *"han puesto de manifiesto la existencia de imprecisiones o lagunas en la normativa reguladora de las pensiones no contributivas"* delakoaren ondoren eman zen. Horregatik, agindu horrek adierazten du bere helburua, besteak beste, 357/1991 ED-an dauden aplikazio arauak garatzea eta argitzea dela, errenta edo diru-sarreraren zenbaketari eta beraien egozpenari buruz, herritarrei pentsio eskubidea zehazteko orduan segurtasun juridikoa bermatze aldera.

Agindu horrek, 2. artikuluan, adierazten du jasotzeko edo gozatzeko eskubidea dagoen edozein motatako errenta edo diru-sarrerak kontuan izango direla, 7. artikuluan jasotako salbuespenak izan ezik. Azken artikulua horrek errenten zenbaketatik, 357/1991 ED-aren 12.4 artikuluan ezarritakoez gain, *"... subvenciones, ayudas o becas destinadas a compensar un gasto realizado..."* baztertzen ditu, besteak beste. Gure ustez, interesdunak eskuratutako dohaintza atal horretan sartu beharko litzateke. Gure iritzia indartzen dute Auzitegi Gorenak gai honetan emandako epaiek, orain ikusiko dugunez.

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

4. Auzitegi Gorenak zenbait aldiz aztertu du zenbait jatorritako diru-zenbateko errenta edo diru-sarrera gisa kontuan hartzea bidezkoa den edo ez, ordaindutakoaren arabera ez diren pentsioetarako. Zentzu horretan epai hauek aipatu behar dira:

a) Auzitegi Gorenaren 3398/2009 epaia, apirilaren 6koa (RJ\2009\2881), doktrina bateratzeko emana. Egokitutako BOE bat eskuratzeko jasotako diru-laguntza publiko baten kasua aztertu zen. Epaiak auzitegi berberaren beste epai bat aipatzen du (2001-12-14koa). Azken epai hartan egoera berdina aztertu zen, baina langabeziagatiko sorospenari aplikatua. Ondorioztatu zen diru-laguntza ezin zela errenta gisa kontuan hartu interesdunaren diru-sarrera maila zehazteko orduan. Eta ondokoa erantsi zuen: *“Una interpretación diferente conduciría a conclusiones ilógicas e injustas, pues se primaría a quien dispone en propiedad de una vivienda sobre el que carece de ella y obtiene una subvención para conseguirla, subvención que ha de invertirse necesariamente en el inmueble para su ocupación como vivienda habitual y que por ello debe seguir el mismo régimen que esta a los efectos que el propio precepto establece: su exclusión como rendimiento computable para entender cumplido el requisito de la carencia de rentas”*. Auzitegiak, gainera, uste du doktrina hau ordaindutakoaren arabera ez den pentsioari aplikatu behar zaiola (bigarren zuzenbide oinarria, 1 eta 2).

Etxebizitzarako diru-laguntzaren eta ordaindutakoaren arabera ez den pentsioaren arteko bateragarritasunak, epai honetan aipatzen denak, eskatzen du administrazioak ahalegin handiagoa egin dezala gure kasuan egin duena baino. Horregatik, eta bi kasuetan jasotako diru-zenbatekoak puntualak direla eta xede bera dutela kontuan izanik, uste dugu ondorio hauetarako berdindu ahal direla.

b) Auzitegi Gorenaren 3676/2009 epaia, apirilaren 30ekoa (RJ\2009\2881), doktrina bateratzeko emana. Trafiko istripu baten biktimak jasotako kalte-ordaina aztertzen du, eta adierazten du diru-sarreraren zenbaketatik salbuetsi behar dela.

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

Epai honek, bere hirugarren zuzenbide oinarrian, 3, kalte-ordain honen izaera juridikoa aztertzen du, GSLOaren 144.5 artikulua kontuan izan beharreko diru-sarrera edo errentei buruz egiten duen definizioa aintzat hartuta (*“los bienes y derechos, derivados tanto del trabajo como del capital, así como los de naturaleza prestacional”*).

Epai horrek dioenez, kalte-ordain hori *“... en ningún caso puede considerarse como una renta, y si bien se trata de un ingreso, no es derivado del trabajo ni del capital, como tampoco tiene naturaleza prestacional sino indemnizatoria. La indemnización que percibe la víctima de un accidente de circulación tiene la finalidad de reparar los daños y perjuicios causados. En definitiva, no estando incluida expresamente dicha indemnización entre los conceptos computables que señala el precepto, tampoco es posible su inclusión por vía interpretativa (...) dada su distinta naturaleza jurídica ”*.

Uste dugu argudio hau ontzat jo daitekeela interesdunak gurasoengandik dohaintza moduan jaso zuen laguntzarako.

Epaiak honela jarraitzen du: *“Siendo de destacar, por otra parte, que los requisitos para el acceso a una prestación de la seguridad social, tanto contributiva como no contributiva, han de ser interpretados de forma y manera que su aplicación no frene su dinamismo progresivo, acorde con las garantías de asistencia y prestaciones sociales que postula la Constitución... en cuanto inherentes al Estado Social y de Derecho, como recuerda la sentencia de esta Sala de 27 de enero de 2009 (RJ 2009, 1438) (rec 1354/2008)...”*.

Uste dugu baieztapen hori are garrantzitsuagoa dela baldin eta ordaindutakoaren arabera ez den ezintasun pentsioaren xedea eta helburua kontuan izaten baditugu: baliabiderik ez daukaten eta beren ezintasunaren ondorioz laneratzeko eta diru-sarrera propioak eskuratzeko beste pertsonen baino ahalegin handiagoa egin behar duten pertsonen premiazko beharrezanean erantzutea.

Era berean, Auzitegi Gorenak *“edozein motatako errentak”* esaeraren edukiaz (esaera GSLOaren 215.1.1 artikuluan jasota dago) iritzia eman du,

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

langabeziaren sorospena dela-eta. Horri buruz aipatutako auzitegiak urtarrilaren 20ko 155/2004 epaian, doktrina bateratzeko emana, adierazi zuen hau kontuan izan behar dela: *"... la finalidad de las prestaciones asistenciales no es otra que la de proteger a los ciudadanos, cuando se encuentran en situaciones de necesidad, que haya de ser socialmente atendida, aunque no tenga derecho a pensión contributiva y ello en desarrollo del art. 41 CE"*. Diru-sarrera gisa zein errenta kontuan izan behar diren eta edozein izaerako errentatzat zeintzuk jo behar ditugun honela azaltzen du epaiak: *"sólo lo son todas las cantidades de percepción periódica –si no tienen perioricidad no son rentas- que son susceptibles de servir a las necesidades personales y de subsistencia de los beneficiarios, no debiendo tener la condición legal de rentas aquellas cantidades destinadas a compensar un gasto ajeno a estas necesidades, como son, por ejemplo, el plus de transporte y otros"* (FD cuarto). Horregatik, pertsona batek laguntza-onura gisa hilabete batean jaso zuena, Auzitegi Gorenaren arabera, *"... naturaleza extrasalarial y no de rentas de cualquier naturaleza, dado su carácter indemnizatorio y episódico"* (FD quinto).

Orain aztertzen ari garen prestazioa ordaindutakoaren arabekoak ez diren pentsioak dira, eta ez langabeziaren sorospena, baina uste dugu epai hori aipatu beharra dagoela, biak ere ordaindutakoaren arabekoak ez diren prestazioak direlako, Gizarte Segurantzarenak.

5. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du aurreko atalean aipatutako lehen bi epaietako bat ere aipatu, erakunde honek hala egin zuen arren. Hala eta guztiz ere, foru erakunde horrek Justiziako Auzitegi Gorenaren (Kataluniakoa eta Balear Irletakoa) hiru epai aipatu zituen (aurreko 5. puntuari aipatu ditugunak). Ados gaude haiekin, baina uste dugu esku artean daukagun egoeratik ezberdinak diren egoerei buruzkoak direla. Gainera, hiru epai horiek zaharragoak dira (1993, 1998 eta 2003. urteetakoak) PRE agindua baino (2009ko azarokoa) eta erakunde honetan aipatu ditugun Auzitegi Gorenaren epaiak baino (2009ko apirilekoak biak). Uste dugu hori garrantzitsua dela, aipatutako agindua ematerakoan ministerioak bazekielako epai horien berri. Eta gogoeta hauetako 3. puntuari azaldu dugunez, ordaindutakoaren arabekoak ez diren pentsioen araudia aplikatzeko irizpideak Auzitegi Gorenaren iritziei egokitzeko eman zen agindu hori.

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

Dohaintza "Egindako gastua konpentsatzeko diru-laguntzak, laguntzak edo beka" atalean sartzearen alde daukagun jarrerari dagokionez (PRE aginduaren 7. artikulua), aldundiak hauxe adierazi zuen: *"salbuespena hau da: interesdunak aurretik egin behar izan duen gastu bat konpentsatzeko ematen den laguntza; era horretan, gastua egin aurreko egoerara itzultzen da laguntzaren bidez"*. Ondokoa gaineratu zuen foru erakundeak: *"Ondorioz, laguntza hori errenta edo diru-sarrera ez izatea litzateke salbuespenaren arrazoia. Bestela esanda, interesdunaren ondarea ez litzateke handituko kasu honetan, eta interesdunak ez luke inolako onura ekonomikorik izango. Laguntza horren bidez, aurretik eginiko gastu bat konpentsatzeko litzateke, besterik ez; beraz, laguntza indemnitaziotzat edo konpentsaziotzat hartu beharko litzateke"*. Amaitzeko, adierazi zuen interesdunak jasotako dohaintza ezin dela salbuespen honetan sartu. Izan ere, dohaintzak ez du aurretik egindako gastu baten kalte-ordain edo konpentsazio izaerarik; aitzitik ondarea gehitzen duen gastua da.

Hau da, aldundiak onartu zuen jasotako dohaintza diru-sarreraren zenbaketatik baztertu ahalko litzatekeela alde aurretik egindako gastu bat estaltzeko balitz eta interesdunaren ondarea gehitzeko ez balitz. Kasu honetan, kalte-ordaina litzateke eta ez errenta, baina azaltzen du ez dela interesdunaren kasua; horregatik, kontuan hartu zaio.

Argudio hori Auzitegi Gorenaren apirilaren 6ko 3398/2009 epaiak, lehen aipatuak, suntsitu du, beraren arabera ohiko etxebizitza eskuratzeko jasotako diru-laguntza publikoa ez da kontuan izan behar. Epai horrek aipatu duen diru-laguntza etxebizitzaren eskuraketa formala baino lehen jaso zen. Izan ere, diru-laguntza *"... dirigida a hacer menos gravoso el pago, por parte del adquirente, de una Vivienda de Protección Oficial, del préstamo hipotecario que hubo necesariamente de concertar (...) para la adquisición de la referida vivienda de protección oficial"* (FD 2). Bestalde, argi dago eskuraketa horrek pertsonaren ondarea areagotu zuela.

Gure kasuaren berdina da. Ezberdintasun bakarra diruaren jatorria da: epaiaren kasuan publikoa da eta gure kasuan pribatua. Beraz, aldundiak erabilitako argudioa indargabetuta geratu da. Interesdunak jaso zuen laguntza, oso-osorik,

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

ohiko etxebizitza erosteak zekarkion gastu handia ordaintzeko izan zen. Etxebizitza eskuratu ondoren, bertan erroldatu zen eta bertan jarri zen bizitzen.

Era berean, onartzen badugu kalte-ordaina ez dela kontuan izan behar, ez delako errenta, eta errenta aldian behin jasotzen dena bakarrik dela, ukitutakoak jasotako dirua (puntuala eta apartekoa izan zena) kalte-ordain izaerakoak litzateke, eta ez errenta (Auzitegi Gorenaren 155/2004 epaia, arestian aipatua). Ondorioz, ezin da kontuan izan.

6. Ohiko etxebizitza premiak asetzeko laguntzak ez dira kontuan izan behar errenten edo diru-sarreraren zenbaketatik ordaindutakoaren araberakoak ez diren edo laguntza izaera duten zenbait prestazio eskuratzeko orduan, bai Gizarte Segurantzarenak bai Euskal Autonomia Erkidegoarenak.

Lehenengoei dagokienez, aipatutako GSLOan ageri dira. Beraz, zenbaketa horretatik pentsioaren osagarria, alokatutako etxebizitzan bizi diren eta ordaindutakoaren araberakoa ez den pentsioa jasotzen duten pertsonei onartzen zaiena, ez da hor sartzen. Hala zen 2011. urtean² eta gaur egun ere bai³. Era berean, ohiko etxebizitzarako laguntzak langabeziaren aurreko babeserako prestazioetatik (adibidez, langabeziaren sorospena) baztertuta daude, GSLOaren 215.3.2. artikulua araberakoa. Ildo horretan, Auzitegi Gorenaren apirilaren 19ko 9501/2002 epaia aipatu behar dugu. Horrekin bat etorritz, arrazoizkoa iruditzen zaigu ulertzea izaera bereko prestazioek (ordaindutakoaren araberakoak ez direnak), erakunde berak emanak (Gizarte Segurantzak) eta lege berean aurreikusitakoak (GSLO), hau da, ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioek, irizpide berbera izatea.

Prestazio autonomikoei dagokienez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaz (DBE) ari gara. Adibidez, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20.2.a) artikulua, diru-sarreraren zenbaketatik hau salbuesten du: *"Diru-sarrera horietatik ohiko etxebizitza eskuratzeko erabili den zatia, lehendik etxebizitzarik ez bazeukan..."*.

² Gizarte Segurantzaren sistemaren pentsioak eta beste prestazio publiko batzuk 2011ko ekitaldirako birbaloratzeko abenduaren 30eko 1794/2010 Dekretuaren 16. artikulua

³ Ordaindutakoaren araberakoak ez diren Gizarte Segurantzaren pentsioen jasotzaileei etxebizitza alokatzeko pentsio-osagarria aitortzeko arauak ezarri zituen abuztuaren 3ko 1191/2012 Errege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarra

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

EAEko Justiziako Auzitegi Nagusiak, apirilaren 11ko 215/2011 epaia eman zuen, oinarrizko errenta jasotzen zuen eta, aldi berean, etxebizitza erosteko maileguari aurre egiteko helburuz alaben dirua jasotzen zuen pertsona bati buruzkoa. Auzitegiaren arabera, prestazioaren dirua zegokion xederako erabiltzen zen eta ez beste baterako (etxebizitza ordaintzeko adibidez) eta prestazioaren etetea (errekurritu zena) bertan behera utzi zuen.

Gaineratu behar dugu interesdunak jasotako dirua ez dela errenta finkoa (ez baitator lanetik ezta kapitaletik ere, eta ez da prestazio izaerakoa). Ez da aldi behin kobratzen den dirua, baizik eta behin bakarrik, salbuespen gisa, kobratu den dirua, egoera berezi bati aurre egitea. Ohiko etxebizitzarako gastu bat konpentsatzea du helburu. Etxebizitza hau ez zen aparteko ezaugarriak eta balioa zeuzkan etxebizitza, baizik eta arkitekturako oztoporik gabeko BOE. Ukitutako pertsonaren etxebizitza premiei erantzuten zien, bai prezioagatik, bai arkitekturako oztoporik ez edukitzeagatik. Pertsona horrek ezin zuen beste etxebizitza mota bat eskuratu; eskuratu zuena jasotako laguntzari esker eskuratu zuen. Bestalde, jasotako diruak ez du areagotu berak daukan dirua, oso-osorik etxebizitza erosteko inbertitu baitu.

Horregatik guztiagatik, inguruabarrak eta emandako erabilera kontuan izan gabe diru hori zenbatzea baliabide gehien daukana saritzea da, gutxien daukanaren kaltetan. Etxebizitza baten jabe dena saritzea da, etxejabe ez denaren eta etxea erosteko laguntza behar duenaren kaltetan. Azpimarratu behar dugu pertsona hau etxebizitza baten jabe balitz ez lukeela arazorik izango, ez bailuke jasotako diruaren beharrik. Ordaindutakoaren arabera ez den pentsioa jasotzen jarraituko luke, aldaketarik gabe.

Horregatik, kasu honetan, funtsezkoa deritzogu pertsona horren egoera kontuan izateari, eta ez dohaintza osoari eman zion erabilera. Hala ez bada egiten, aukera berdintasuneko printzipioa urratzea eta botere publikoek egoera behartsuan dauden alde aplikatu behar dituzten ekintza positiboko neurriak ez aplikatzea litzateke. Neurri horien helburua gizarte ezberdintasunak eta oztopoak gutxitzea da, pertsona guztiek bizitza duina bizi ahal izateko oinarrizkotzat jotzen diren ondasun eta zerbitzuak eskuratu ahal izatea mesedetzeko, gizarte ongizatea pertsona guztiengana irits dadin.

Erreferentzia: 610/2012/01
2013ko martxoaren 13ko ebazpena

7. Hori guztia kontuan izanik, ordaindutakoaren araberakoa ez den pentsioaren kasurako, ez genuke kontuan izan beharko interesdunak ohiko etxebizitza eskuratzeko jaso zuen aparteko diru-zenbatekoa.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Gomendioa

- (...) andreak jasotako dohaintza, ohiko etxebizitza erosteko oso-osorik erabili zuena, ez dadila errentatzat edo diru-sarreratzat jo ordaindutakoaren araberakoa ez den pentsioaren ondorioetarako.
- Jasotzen zuen pentsioa eteteko ebazpena indargabetzea eta ukitutakoari pentsioa jasotzeko eskubidea itzultzea, bertan behera utzi zen unetik aurrera.

Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 13a